**Ordiziako udalerrian aparkamendu mugatuko eremuak arautzen dituen udal ordenantza.**

## ARRAZOIEN AZALPENA

Trafiko eta Zirkulazio arloko Ordenantza hau emateko eskumenak Udalari eman dizkio apirilaren 2ko 7/85 Legeak Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituenak; 25.2.b) artikuluak adierazten du udalerriei dagozkiela hiriguneetako bideetan ibilgailu eta oinezkoen trafiko antolamenduari buruzko eskumenak.

Era berean, urriaren 30eko 6/2015 Errege Lege Dekretuak, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak b) artikuluan ezartzen du udalari dagokiola udal ordenantzaren bidez hiriguneetako bideen zirkulazioa, eta erabilera arautzea eta bateragarri eginez erabiltzaile guztien artean aparkalekuen bidezko banaketa, ibilgailuen beharrezko arintasuna, kaleak oinezkoek erabiltzea eta denbora mugatuan aparkatzeko neurriak ezartzea aparkalekuen errotazioa bermatzeko. Arreta berezia eskainiko zaie mugikortasun murriztua duten, mendekotasuna duten eta ibilgailuak erabiltzen dituzten pertsonen beharrei, hori guztia beraien integrazio soziala hobetzeko.

Helburu horiek lortzearren aparkamendu mugatuko eremuen Ordenantza arautzailea onartzen da, Ordiziako udalerrian aplikatuko dena.

### 1. artikulua.

Ordenantza honen helburua da araututako aparkalekuen udal zerbitzu publikoa arautzea eta aparkaleku eskariari aurre egitea da, hiriaren kalitatea eta irisgarritasunaren helburu orokorrak kontuan hartuta, erabilera publikoa duten bide eta aparkalekuetan ibilgailuen aparkatze-aldiak modu funtzional batean antolatzea, eta betearazteko ere neurriak ezartzea.

### 2. artikulua.

Araudiaren barruan aparkatzeko denbora tartea mugatuko da, baita kokalekuak ere, guneak eta

**Ordenanza reguladora de las zonas de estacionamiento limitado en el término municipal de Ordizia.**

## EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La presente Ordenanza se dicta en virtud de la competencia atribuida al Municipio en materia de tráfico y circulación por la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, que en su art. 25.2.b) señala que corresponde en todo caso a los municipios las competencias sobre ordenación de tráfico de vehículos y personas en las vías urbanas.

Así mismo, Real Decreto Legislativo 6/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial en su artículo 7 b) establece que corresponde al municipio la regulación mediante ordenanza municipal de circulación, de los usos de las vías urbanas, haciendo compatible la equitativa distribución de los aparcamientos entre todos los usuarios con la necesaria fluidez del tráfico rodado y con el uso peatonal de las calles, así como el establecimiento de medidas de estacionamiento limitado, con el fin de garantizar la rotación de los aparcamientos, prestando especial atención a las necesidades de las personas con discapacidad que tienen reducida su movilidad y que utilizan vehículos, todo ello con el fin de favorecer su integración social.

En aras al logro de dichos objetivos se aprueba la presente Ordenanza reguladora de las zonas de estacionamiento limitado de aplicación en el término municipal de Ordizia.

### Artículo 1.

El objeto de la presente ordenanza es establecer las normas que han de regular el servicio público municipal de estacionamiento regulado para atender adecuadamente la demanda de estacionamiento, dentro de los objetivos generales de calidad urbana y accesibilidad, mediante la ordenación funcional, espacial y temporal de los estacionamientos de vehículos en las vías y aparcamientos de uso público, estableciendo medidas para garantizar su cumplimiento.

### Artículo 2.

Esta regulación implica la limitación del tiempo de estacionamiento, así como la localización de

ordutegiak bereizita, Ordenantza honetako arauen arabera.

Aparkamendu mugatuko eremuak bi eratakoak izango dira:

a. Herritarrek orokorrean erabili ditzaketen aparkaleku mugatuko eremuak, sektore urdineko aparkaleku deiturikoak, eta horiek erabiltzeko ez da inongo tasa edo preziorik ordainduko.

b. Eremuko egoiliarrek erabiliko dituzten aparkamendu mugatuko eremuak, sektore gorriko aparkaleku deiturikoak, horretarako udalak onartzen duen tasa edo prezio publikoa ordaindu beharko dutena.

**3. artikulua.**

Ordenantza honetako 1. Artikuluan zehazten diren bide publiko eta aparkalekuetan aparkatu ahal izateko, arau orokor eta zehatz guztiak betetzeaz gain, eta ibilgailuak aparkatzeko seinaleek adierazitakoa jarraitzeaz gain, eremu horretan aparkatzeko baimendutako gehienezko denbora errespetatu beharko dute.

Modu berezian, eta trafikoaren edota aparkalekuen gorabeherek hala eskatzen dutenean, Alkatetza-lehendakaritzak Ordenantza honetan arautako aparkatze-baldintzak aldi baterako aldatu edo indar gabe uzteko egoki deritzon neurriak hartu ahal izango ditu.

Aparkaleku mugatu moduan seinaleztatutako guneetan ez dute aparkatzeko txartelik jarri beharko ondoren zehazten direnak:

- Udal Zerbitzu publikoekin lotura duten ibilgailuak.
- Karga eta deskarga egiten ari diren ibilgailu komertzialak, horretarako egokitutako aparkalekuetan.
- Auto-taxi ibilgailuak gidaria zerbitzua ematen ari denean eta bertan dagoenean.
- Larrialdietako ibilgailuak zerbitzua ematen ari direnean.
- Egoiliarrentzako txartela duten ibilgailuak, soilik egoiliarrentzako diren eremuetan.

**4. artikulua**

4.1. Motozikletak eta ziklomotorrak.

su ámbito territorial de aplicación, por zonas y según horarios que se regulan en la presente Ordenanza.

Las zonas de estacionamiento limitado serán de dos tipos:

a. Zonas de estacionamiento limitado de uso general por la ciudadanía, denominadas estacionamiento de sector azul, que por su utilización no se abonará precio ni tasa alguna.

b. Zonas de estacionamiento limitado de uso para residentes de la zona, denominadas estacionamientos del sector rojo que deberán abonar la tasa o precio público que al efecto apruebe el ayuntamiento.

**Artículo 3.**

Para estacionar en las vías públicas y aparcamientos a que se refiere el artículo 1 de la presente Ordenanza, además de cumplir todas las normas generales y particulares y observarse las señalizaciones que afectan el estacionamiento de vehículos, deberán respetar el tiempo máximo de aparcamiento autorizado para cada zona.

Con carácter excepcional y coyuntural, el Alcalde podrá adoptar las medidas que considere oportunas, modificando o suspendiendo temporalmente, las condiciones del estacionamiento reguladas por esta Ordenanza cuando las circunstancias que inciden en el tráfico y el aparcamiento así lo aconsejen.

Estarán exentos de cumplir con la limitación de tiempo en las zonas señalizadas como zonas de estacionamiento limitado los siguientes vehículos:

- Los vehículos vinculados a servicios públicos municipales.
- Los vehículos comerciales que estén realizando labores de carga y descarga, en los estacionamientos destinados para ello.
- Los vehículos auto-taxis cuando el conductor esté presente y en servicio.
- Los vehículos de urgencias cuando estén prestando servicio.
- Los vehículos poseedores de la tarjeta de residente, solamente en las zonas habilitadas para residentes.

**Artículo 4.**

4.1. Motocicletas y ciclomotores.

Motozikletak eta ziklomotorrak gainontzeko motordun ibilgailuentzat egokitutako aparkalekuetan aparkatzea debekatuta geratzen da. Ibilgailu hauek beraientzat egokitutako aparkaleku eremuak erabili beharko dituzte. Arau-hauste hau zigortu egingo da.

Queda prohibido estacionar motocicletas y ciclomotores en los aparcamientos destinados al resto de vehículos de motor. Estos vehículos deberán utilizar las zonas de aparcamiento habilitadas para ellos. La infracción de este precepto será sancionada.

4.2. Mugikortasun urria duten pertsonentzako txartelen jabeak.

4.2. Titulares de tarjetas para personas con movilidad reducida.

Mugikortasun urriko pertsonentzako txartela duten ibilgailuek baimena izango dute aparkamendu arautuko udal zerbitzu sistemak erregulatutako kaleetan aparkatzeko, gainerako ibilgailuentzako eremu bakoitzerako ezarritako denboraren bikoitza. Ezin izango dute sektore gorrian aparkatu ez badute horretarako baimenik.

Los vehículos que dispongan de tarjeta para personas con movilidad reducida estarán autorizados a estacionar en las vías públicas reguladas por el sistema de servicio municipal de estacionamiento regulado el doble del tiempo estipulado en cada zona para el resto de vehículos. No podrán estacionar en el sector rojo si no están autorizados para ello.

**5. artikulua.**

**Artículo 5.**

2. artikuluan bereizitako sektoreak ondorengoak dira:

Los sectores diferenciados en el artículo 2 son los siguientes:

SEKTORE URDINA:

SECTOR AZUL:

Sektore honetara 122 aparkaleku bideratzen dira, eta honela banatuta geratzen dira:

Se habilitan 122 plazas de aparcamiento en el dicho sector distribuyéndose las mismas de la siguiente manera:

- URDANETA KALEA: 1etik 27ra, 2tik 20ra eta 48tik 58 zenbakietara doazen aparkalekuak. Guztira 24 aparkaleku.
- GUDARIEN ETORBIDEA: Etxezarreta kaleko bidegurutzetik Zuberoa kaleko bidegurutzera. Guztira 30 aparkaleku.
- GOIERRI KALEA: Urdaneta kaleko atzealdean 5,7 eta 11 zenbakiak. Guztira 15 aparkaleku.
- JOAN AMEZKETA KALEA: Guztira 15 aparkaleku.
- JOSEBA REZOLA PASEALEKUA: Goierri kalearen atzealdeko 2. zenbakia eta Domingo Unanue Plazaren pareko aparkalekuak 1. zenbakia. Guztira 30 aparkaleku.
- ORDIZIA KALEA: Guztira 8 aparkaleku.

Sektore urdineko aparkalekuen ordutegia honako hau izango da: astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

- URDANETA KALEA: Estacionamientos situados entre los números 1 al 27, 2 al 20 y del 48 al 58. Total 24 plazas.
- GUDARIEN ETORBIDEA: Desde el cruce de Etxezarreta kalea hasta el cruce de Zuberoa kalea. Total 30 plazas.
- GOIERRI KALEA : Trasera de Urdaneta kalea nº 5, 7 y 11. Total 15 plazas.
- JOAN AMEZKETA KALEA: Total 15 plazas.
- JOSEBA REZOLA PASEALEKUA: Trasera de Goierri kalea nº 2 y aparcamientos frente a Domingo Unanue Plaza nº 1. Total 30 plazas.
- ORDIZIA KALEA: Total 8 plazas.

El horario para el estacionamiento en el sector azul será: de lunes a viernes de 09:00 a 13:00 y de 16:00 a 20:00 horas.

SEKTORE GORRIA

SECTOR ROJO:

Sektore honetara 201 aparkaleku bideratzen dira, eta honela banatuta geratzen dira:

- GOIERRI KALEA: Kale guztia sektore urdineko aparkalekuak izan ezik. Guztira 64 aparkaleku.

Se habilitan 201 plazas de aparcamiento en este sector, que se distribuyen de la siguiente manera:

- GOIERRI KALEA: Toda la calle a excepción de las plazas del sector azul. Total 64

- MARIBARATZA KALEA: Kale guztia. Guztira 23 aparkaleku.
- KALE BERRI: Kale guztia. Guztira 19 aparkaleku.
- JOSEBA REZOLA PASEALEKUA: Urdaneta kalearen atzealdetik 41. zenbakitik RENFE geltokiraino. Guztira 66 aparkaleku.
- URDANETA KALEA: Kale guztia sektore urdineko aparkalekuak izan ezik. Guztira 24 aparkaleku.
- DIEGO RIVERO KALEA: Kale guztia. Guztira 5 aparkaleku.

plazas.

- MARIBARATZA KALEA: Toda la calle. Total 23 plazas
- KALE BERRI: Toda la calle. Total 19 plazas
- JOSEBA REZOLA PASEALEKUA: Desde la trasera de Urdaneta kalea nº 41 hasta la estación de RENFE. Total 66 plazas.
- URDANETA KALEA: Toda la calle excepto las plazas del sector azul. Total 24 plazas.
- DIEGO RIVERO KALEA: Toda la calle. Total 5 plazas.

Sektore gorriko aparkalekua, astelehenetik ostiralera, bereizgarri ofizialaren bidez baimendutako ibilgailuek soilik erabili ahal izango dute, 09:30etik 20:30era bitarteko ordutegian izan ezik, orduan mota guztietako ibilgailuak aparkatu ahal izango baitira. Ordenantza honetako 9. artikuluan aipatzen diren merkatarientzat, tarte hori 06:30ean hasiko hasiko da, 09:30ak arte.

El estacionamiento en el sector rojo de lunes a viernes queda restringido al uso exclusivo de vehículos autorizados mediante el distintivo oficial, salvo en la franja horaria entres las 9:30 y las 20:30 horas, en la que podrán estacionar todo tipo de vehículos. Para los comerciantes a los que se refiere el artículo 9 de la presente ordenanza, esa franja empezará a las 6:30 horas, hasta las 09:30 horas.

Santa Ana herriko jaietan zehar, jai berezietan eta abuztuan zehar araututako aparkamendu zerbitzua indargabetu egingo da.

Durante las fiestas patronales de Santa Ana, las ferias especiales y el mes de agosto se suspenderá el servicio de estacionamiento regulado.

**6. artikulua.**

Udaltzaingoa arduratuko da, agente propioen edo laguntzaileen bitartez, aparkaleku mugatuko eremuak kontrolatzeaz; horretarako, beharrezkoak dituzten bitarteko materialak eta pertsonalak emango zaizkie.

**Artículo 6.**

La Policía Municipal, a través de sus propios Agentes o Auxiliares, será la encargada del control del aparcamiento en las zonas de estacionamiento limitado, para lo cual se les dotará de los medios materiales y personales necesarios para ello.

**7. artikulua.**

Honako hauek izango dira aparkatzeko denbora mugak:

- **Sektore urdina:** gehienez ordu 1, Urdaneta kaleko 7. zenbakiko bi plazatan izan ezik, hor gehienez 15 minutuz aparkatu ahal izango da; halaber, salbuespena da Joseba Rezola Etorbideko 8 plazatan aparkatzeko (Goierri kalea 2ko atzealdea), hor gehienez ere 30 minutuz aparkatu ahal izango da.

- **Eremu gorria:** baimena duten egoiliarrentzat soilik, eta ezarritako denbora-tartearen barruan, denbora-mugarik gabe.

**Artículo 7.**

Se establecen los siguientes tiempos máximos de estacionamiento:

- **Sector Azul**: 1 hora máximo, salvo 2 plazas en Urdaneta kalea 7, que se podrá estacionar por un tiempo máximo de 15 minutos y 8 plazas en Joseba Rezola Etorbidea (trasera de Goierri kalea 2), que se podrá estacionar por un tiempo máximo de 30 minutos.

- **Zona Roja**: Solamente para residentes autorizados y dentro del horario establecido, sin límite de tiempo.

**8. artikulua.Tarifak**

Sektore urdineko eremuetan aparkatzeagatik ez da tasarik edo prezio publikorik ordainduko.

**Artículo 8. Tarifas**

No se abonará tasa ni precio público por razón del estacionamiento en las zonas del sector azul.

Aitzitik, sektore gorriko eremuan aparkatzeagatik udalak dagokion ordenantza fiskalean ezarriko duen tasa edo prezio publikoa ordaindu beharko da. Lehen txartelak 20 € balioko du, eta bigarrenak 75 €.

Por el contrario, el estacionamiento en zonas del sector rojo, conllevará el abono de la tasa o precio público que apruebe el ayuntamiento en la correspondiente Ordenanza Fiscal. La primera tarjeta tendrá una tasa de 20 € y la segunda 75 €.

**9. artikulua.**

Sektore gorrian aparkatzeko baimena lortzeko, alegia bertan bizi direnentzako, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Ibilgailuak sektore gorriko kaleren batean erregistraturik egon beharko du Trafikoko Zuzendaritza Nagusian.
- Ibilgailuaren jabeak ibilgailuaren helbide berean egon beharko du erroldaturik.
- Ibilgailuaren jabea ez badago sektorean erroldatuta baina Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako mendekotasuna duen zuzeneko senideren bat badu, eta familia bada ibilgailua zaintzeaz arduratzen dena, zaintzailearentzat aparkatzeko txartel bakarra baimenduko da, eta baimen horrek gehienez hiru ibilgailu emango ditu txartel bakoitzeko.
- Ibilgailuek M1 kategoriakoak izan beharko dute (pertsonak garraiatzeko ibilgailuak). Beste kategoria batekoa bada, baina 4,75 m baino luzera txikiagokoa, baimena emango da baldin eta enpresaren lokala eremu horretan badago eta baimena eskatzen den ibilgailua enpresa horren jarduerari atxikita badago.
- Ez dute zorrik edukiko Ordiziako Udalarekin.

Baimen-eskaera I. eranskineko eredu ofizialaren arabera aurkeztuko da, behar bezala beteta, eta ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia konpultsatuarekin batera. Baimendu nahi den ibilgailu bakoitzeko eskaera bat aurkeztu beharko da.

Gainerako alderdiak udalak egiaztatuko ditu ofizioz, betiere eskaeran eskatzaileak udalari horretarako berariazko baimena ematen badio.

Etxebizitza bakoitzeko 2 baimen baino ez dira emango.

Egoiliar-txartela edo baimena jasoko duten pertsonak izango dira txartel edo baimen horren erantzule, eta Ordiziako Udalari jakinaraziko dizkiote helbidean edo ibilgailuan izan diren aldaketak, beharrezkoak diren ondorioetarako.

**Artículo 9.**

Para la obtención de la autorización del estacionamiento en el sector rojo, es decir para residentes de la zona, deberán de cumplirse los siguientes requisitos:

- El vehículo deberá estar registrado en la Dirección General de Tráfico en alguna de las calles del sector Rojo.
- El propietario del vehículo deberá estar empadronado en la misma dirección del vehículo.
- Si el propietario o propietaria del vehículo no estuviera empadronado en el sector pero tuviera un familiar directo con dependencia reconocida por la Diputación Foral de Gipuzkoa, y es la familia quien se encarga de su cuidado, se autorizará una única tarjeta de estacionamiento para la persona cuidadora, autorización que habilitará un máximo de tres vehículos por tarjeta.
- Los vehículos deberán ser de la categoría M1 (vehículos destinados al transporte de personas). Si fuera de otra categoría pero con dimensiones inferiores a 4,75 m de largo, se autorizará cuando el local de la empresa se ubique en la zona y el vehículo para el que se solicita autorización, esté adscrito a la actividad de la citada empresa.
- No deberán tener deudas con el Ayuntamiento de Ordizia.

La solicitud de autorización será presentada en el modelo oficial conforme al Anexo I debidamente cumplimentado, aportando fotocopia compulsada del permiso de circulación del vehículo. Deberá de presentarse una solicitud por vehículo a autorizar.

El resto de extremos será comprobado de oficio por el Ayuntamiento siempre que en la solicitud conste expresamente la autorización al ayuntamiento por parte del solicitante.

Solo se concederán 2 autorizaciones por vivienda.

Las personas a las que se les otorgue tarjeta o autorización de residente serán responsables de la misma, debiendo notificar al Ayuntamiento de Ordizia los cambios de domicilio o de vehículo a los efectos oportunos.

Kontrola txartel bidez egiten bada, horretan baimendutako ibilgailuaren matrikula eta iraunaldia ageriko dira.

En el caso de que el control se realice mediante una tarjeta, en esta constará la matrícula del vehículo autorizado así como el periodo de validez.

Egoiliar baimena lortzeko baldintzetakoren bat baimenaren balio-iraunaldian zehar aldatuz gero, baimena bertan behera geratuko da automatikoki, eta udalari entregatu beharko dio 7 egun naturaleko epean, aldaketa gertatzen unetik kontatzen hasita; halakoetan, erabili ez den tarteari dagokion zenbatekoa ez da itzuliko.

La modificación durante el período de validez de la autorización de alguno de los requisitos para la obtención del permiso de residente, llevará aparejada la anulación automática de la misma, debiendo ser entregada al ayuntamiento en el plazo de 7 días naturales desde que se produzca la circunstancia que lo motive, sin que dé lugar a la devolución de la tasa por el periodo no disfrutado.

Egoiliar txartelaren edo baimenaren titularrak helbidez edo ibilgailuz aldatzen badu, ibilgailu berriari dagokion txartela edo baimena emango zaio; halakoetan, ez du ezer ordaindu behar izango baldin eta helbide berria aparkatzeko gaitutako eremu horretan badago. Egoiliarrak bere txartela entregatu beharko du eta ibilgailu berriaren zirkulazio-baimenaren fotokopia aurkeztu beharko du. Honako arau hau bete ezean, ordenantza honetan aurreikusitako zigorrez gain, egoiliarrentzako txartela ezeztatu egingo zaio, eta ezin izango du berririk atera, horretarako eskubidea izan arren.

Cuando el titular de una tarjeta o autorización de residente cambie de domicilio o de vehículo se le otorgará la tarjeta o autorización correspondiente al nuevo vehículo, sin abono de tasa alguna siempre que el nuevo domicilio se halle incluido en las zonas habilitadas, debiendo entregar la tarjeta de la que disponga y aporte fotocopia del permiso de circulación del nuevo vehículo. La inobservancia de esta norma, además de las sanciones previstas en la presente ordenanza implicará la anulación de la autorización de residente y denegación de una nueva, si tuviera derecho a ella.

Zirkulazioko baimena enpresa baten izenean duten ibilgailuen jabe diren egoiliarrek ere eskatu ahal izango dute txartel berezi hori. Kasu horretan, enpresak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute egiaztatzeko ibilgailu hori eskatzailearen erabilera pertsonalerako dela. Halaber, ibilgailua (leasing edo renting) alokairuan duten egoiliarrek ere eskatu ahal izango dute txartel berezi hori, ibilgailuaren aseguruan ohiko gidari bezala egon behar dutelarik.

También podrán solicitar la autorización, los residentes que dispongan de un vehículo cuyo permiso de circulación esté a nombre de una empresa en cuyo caso deberán aportar documento acreditativo por parte de la empresa que justifique que dicho vehículo está adscrito al uso personal del solicitante así como los residentes que dispongan de un vehículo en régimen de arrendamiento (leasing o renting) y figuren como conductor habitual en el seguro del vehículo.

Baimenen indarraldia bat etorriko da baimena eman den urte naturalarekin, eta denbora hori igarota, txartela iraungi egingo da, eta nahitaezkoa izango da berri bat eskatzea.

El período de vigencia de las autorizaciones coincidirá con el año natural en el que se autoricen, transcurrido el cual, caducarán, siendo preciso solicitar una nueva.

**10. artikulua.**

Alkateak baimen bereziak eman ahal izango ditu edozein eremutarako balizko hauetan:

- Ordezkaritza diplomatikoen Ibilgailuentzat.
- Udalaren iritziz baldintza bereziak dituzten ibilgailuentzat.

**Artículo 10**

El Alcalde podrá otorgar autorizaciones especiales para cualquiera de las zonas en los siguientes supuestos:

- Los vehículos de representaciones diplomáticas.
- Los vehículos que a criterio municipal acrediten circunstancias especiales o excepcionales.

Baimen hori lortzeko, udalak eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Para la obtención de la misma, se presentará la documentación que en cada caso le requiera el ayuntamiento.

**11. artikulua.**

Ordenantza honetako artikuluek ezarritakoa urratzeak edota Alkatetza honen garapenean ezarritako beste xedapenen bat urratzeak ere, legez ezarritako prozeduraren bidez zigortuko dira.

Arau-haustetzat hartuko dira:

a. Aparkatzeko baimendutako denbora gainditzea.
b. Aparkatzeko denbora-muga bukatuta, kale berean aparkatzea behin eta berriz.
c. Seinaleztatutako aparkaleku-mugak gainditzea beste bat edo batzuk erabilezin utzita.
d. Indargabetuta edo iraungia dagoen nahiz egokia ez den egoiliar txartel bat erabiltzea.
e. Egoiliar txartela erabiltzea baimena jaso zuen ibilgailuaren jabetza aldatu bada.
f. Titularrek ez jakinaraztea helbidearen aldaketa edo ibilgailuaren transferentzia.
g. Txartel bereziak behar bezala ez erabiltzea.
h. Motozikleta edo ziklomotorra gainontzeko motordun ibilgailuentzat egokitutako tokian aparkatzea.
i. Egoiliarren eremuan aparkatzea horretarako baimenik gabe edo txartela ikusten ez dela.

**Artículo 11**

La infracción de cualquiera de los artículos de la presente Ordenanza, así como de las disposiciones que en su desarrollo se dicten por la Alcaldía, conllevará la imposición de sanciones mediante el procedimiento legal establecido.

Se considerarán infracciones:

a. Rebasar el tiempo de estacionamiento permitido.
b. Estacionar sucesivamente en la misma calle una vez finalizado el período máximo de estacionamiento.
c. Estacionar fuera del perímetro de la plaza señalizada inutilizando otra u otras.
d. Utilizar una tarjeta de uso de residente anulada, caducada o no idónea.
e. Utilizar la tarjeta de residente una vez transferida la propiedad del vehículo para el que se le otorgó.
f. Incumplir los titulares de las autorizaciones la obligación de comunicar el cambio de domicilio o transferencia del vehículo.
g. No utilizar debidamente las tarjetas especiales.
h. Estacionar motocicleta o ciclomotor en aparcamiento destinado al resto de vehículos de motor.
i. Estacionar en zona de residentes sin autorización habilitante o no visible.

**12. artikulua.**

Ordenantza honetako arau-hausteak honela sailkatzen dira:

ARAU HAUSTE LARRIAK: arau-hauste larritzat hartzen dira honako hauek:

1. Indargabetuta edo iraungia dagoen nahiz egokia ez den egoiliar txartel bat erabiltzea.
2. Urtebeteko epean arintzat jotako bi arau-hauste baino gehiago egitea.

ARAU HAUSTE ARINAK: Arau-hauste arinak izango dira ordenantza honetako edozein arau urratzea, horiek larritzat hartzen ez badira.

**Artículo 12.**

Las infracciones de la presente ordenanza se califican en:

INFRACCIONES GRAVES: tienen el carácter de graves las siguientes infracciones.

1. Utilizar una tarjeta de uso de residente anulada, caducada o no idónea.
2. La comisión en el plazo de 1 año de más de dos infracciones calificadas como leves.

INFRACCIONES LEVES: Tienen la consideración de infracción leve cualquier infracción de las normas de la presente ordenanza que no tengan la consideración de grave.

**13. artikulua.**

Arau-hauste larriek 200 €-ko isuna izango dute.

Arau-hauste arinek 40 €-ko isuna izango dute.

11.a) artikuluan tipifikaturiko arau-hausteak, hau da ibilgailuak aparkatuta daraman denbora baimendutako denboraren halako hirutik gorakoa denean, eta artikulu honen arabera ezar dakiokeen zigorrari kalterik sortu gabe, berarekin ekarriko du araua urratu duen ibilgailua bide publikotik erretiratzea.

Halaber, bide publikotik erretiratuko da ibilgailua baimenik gabe egoiliarren eremuan aparkatzeagatik, edo baimena bistan ez egoteagatik [11. artikulua, i) atala].

**14. artikulua.**

Ibilgailu bat bide publikotik kentzen bada, ibilgailuaren gidariak eta subsidiarioki haren ordezkoa den titularrak, honako kontzeptu hauek eragindako gastuak ordaindu beharko ditu:

1. Bide publikotik kentzea eta ibilgailuen udal-biltegira eramatea.
2. Ibilgailua udal-biltegira eraman eta 24 ordura, bertan egoteagatik eguneko ordaindu beharreko tasa.

Gastu horien guztien zenbatekoak dagokion Zerga Ordenantzan zehaztuko dira. Zenbatekoak eginiko arau-hausteari dagokion isunarekiko independenteak izango dira.

**15. artikulua**

Ordenantza honetan jaso ez diren kasuetarako, ondorengoak hartuko dira kontuan: Hiritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen udal-ordenantza eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-Segurtasunari buruzko Legea, eta bere garapenerako Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra.

**XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA**

Osoko bilkuraren erabaki bidez eta Ordenantzen aldaketei dagozkien tramiteei jarraitu beharrik

**Artículo 13.**

Las infracciones graves serán sancionadas con 200 €.

Las infracciones leves serán sancionadas con 40 €.

La infracción tipificada en el artículo 11 apartado a), es decir, cuando el estacionamiento rebase el triple del tiempo máximo autorizado, sin perjuicio de la sanción que proceda conforme al presente artículo, dará lugar a la retirada de la vía pública del vehículo infractor.

Igualmente procederá dicha retirada cuando la infracción consista en estacionar en zona de residentes sin la autorización pertinente o cuando ésta no sea visible (artículo 11 apartado i).

**Artículo 14.**

En el supuesto de retirada de un vehículo de la vía pública, el conductor del vehículo y subsidiariamente su titular, habrán de satisfacer el importe de los gastos ocasionados por los siguientes conceptos:

1. Retirada de la vía pública y traslado al depósito municipal.
2. Tasa por la estancia/día en el depósito municipal a partir de las 24 horas de la retirada.

La cuantía de estos gastos vendrá determinada en la correspondiente Ordenanza Fiscal, y deberán ser abonados con independencia de la sanción que por la comisión de la infracción correspondiera.

**Artículo 15.**

En todo aquello no previsto en la presente Ordenanza, será de aplicación la Ordenanza Municipal reguladora de los Usos, Tráfico, Circulación y Seguridad en las Vías Públicas de Carácter Urbano y en la Ley de Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, así como en el Reglamento General de Circulación para la aplicación y desarrollo de la misma.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL ÚNICA**

Por acuerdo del Pleno, sin necesidad se sujetarse a los trámites correspondientes a la

gabe, aldez aurreko txosten teknikoen bidez lehendik zehaztutako bideetako aparkaldi mugatuko egunak eta orduak aldatu ahal izango dira.

Horrekin batera, eta prozedura bera jarraituz, 5. artikuluko aparkaldi mugatuko bideak aldatu ahal izango dira, zabalduz edo murriztuz, berriak ipiniz eta lehendik daudenak kenduz

**XEDAPEN IRAGONKORRA I**

Aparkaldi mugatuko eremuak era mailakatuan ipintzeko, sektore gorriko aparkaldi mugatuko eremuen tarifei dagokien 8. Artikulua udalerri osorako adosten den aparkaldi mugatuko sistema abian jartzen denean aplikatzen hasiko da.

**XEDAPEN IRAGONKORRA II**

Udalerri osoan sistema orokor bat ezartzen den bitartean, honako hauek ere egoiliartzat joko dira: Herrigune Historikoko oinezko eremuko bizilagunak, hain zuzen ere, Kale Nagusia 1etik 11ra eta 2tik-22ra, Santa Maria-Andre Maria kalea 3tik-19ra, Goenkale 1etik-9ra eta 2tik-8ra, Joaquin Jose Arteaga kalea 1 eta 2.

modificación de Ordenanzas, previo los oportunos informes técnicos, podrán modificarse los días y las horas en que regirá el estacionamiento limitado para cualquiera de sectores regulados.

Asimismo y siguiendo el mismo procedimiento, se podrán modificar las vías de estacionamiento limitado relacionadas en el artículo 5, ampliándolas, reduciéndolas, suprimiéndolas o estableciéndoles nuevamente.

**DISPOSICION TRANSITORIA I**

En aras a una progresiva implantación de las zonas de estacionamiento limitado en el municipio, el artículo 8 referente a las tarifas de las zonas de estacionamiento en el sector rojo será de aplicación cuando se ponga en marcha en todo el municipio el sistema de estacionamiento limitado que se acuerde.

**DISPOSICION TRANSITORIA II**

Mientras se proceda a la implantación de un sistema general en todo el municipio, se considerarán también residentes los vecinos de la zona del Casco Histórico peatonal, concretamente, Kale Nagusia 1 al 11 y 2 al22, Santa María-Andre Maria kalea, 3 al 19, Goenkale, 1 al 9 y 2 al 8, Joaquin Jose Arteaga kalea, 1 y 2

Jarduneko ALKATEA/LA ALCALDESA en funciones

IDAZKARIA / LA SECRETARIA

## ANEXO I

| **EGOILIAR TXARTELA ESKATZEKO ORRIA**<br>**(Aparkaldi Mugatuko Zonen Ordenantza)** | HOJA DE SOLICITUD PARA TARJETA RESIDENTE<br>(Ordenanza de Zonas de Estacionamiento Limitado) |
|---|---|

**BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

1. **Gune gorriari dagozkion eremuetan erroldatuta egotea, ordenantzaren II. xedapen iragankorrean aipatzen diren Alde Zaharreko egoiliarrak izan ezik.**
2. **Ibilgailuaren helbideak bat etorri behar du erroldaren helbidearekin, 9. artikuluko 3. eta 4. puntuetan arautukako kasuetan izan ezik.**
3. **Ordiziako Udalarekin zorrik ez izatea.**
4. **Aparkatzeko baimendu beharreko ibilgailuaren zirkulazio-baimena.**

REQUISITOS A CUMPLIR

1. Estar empadronado dentro de las zonas correspondientes al sector rojo, salvo los residentes del Casco Antiguo a los que se refiere la Disposición Transitoria II de la Ordenanza.
2. La dirección del vehículo tiene que coincidir con la dirección del padrón, salvo en los supuestos regulados en el artículo 9, puntos 3 y 4
3. No tener deudas con el Ayuntamiento de Ordizia.
4. Permiso de circulación del vehículo a autorizar para el estacionamiento.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

**1.- Eskabidea beteta**
**2.- Foru Aldundiaren egiaztagiria, eskatzailearen mendekotasunari buruzkoa, eta baimendu beharreko matrikulak.**
**3.- Ibilgailua enpresa edo negozio eskatzailearen jarduerari atxiki zaiola egiaztatzen duen agiria.**

DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

1.- Solicitud cumplimentada
2.- Documento acreditativo de la Diputación Foral de dependencia del solicitante y matriculas a autorizar.
3.- Documento acreditativo de la adscripción del vehículo a la actividad de la empresa ó negocio solicitante.

| **ESKATZAILEA -** SOLICITANTE | | | |
|---|---|---|---|
| **Izen abizenak:**<br>Nombre y apellidos: | | | |
| **Helbidea:**<br>Domicilio: | | | |
| **NAN zk.:**<br>Nº DNI: | | **Telefono zk.:**<br>Nº teléfono: | |

| **IBILGAILUA -** VEHÍCULO | | | |
|---|---|---|---|
| **Marka:**<br>Marca: | **Eredua:**<br>Modelo: | **Matrikula:**<br>Matrícula: | |

| **IBILGAILUA -** VEHÍCULO | | | |
|---|---|---|---|
| **Marka:**<br>Marca: | **Eredua:**<br>Modelo: | **Matrikula:**<br>Matrícula: | |

| **IBILGAILUA -** VEHÍCULO | | | |
|---|---|---|---|
| **Marka:**<br>Marca: | **Eredua:**<br>Modelo: | **Matrikula:**<br>Matrícula: | |

**Ordizia, 20___ko _____________aren ___a.**
Ordizia, ___ de _____________ de 20___.

**Izenpetua Interesatua**
Firmado Interesado/a